

TARTEKO MAILA 2

GAITASUN BAKOITZA NEURTZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

IDATZIAREN ULERMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituenean, gai da:

- Gaia, ideia garrantzitsuenak, detaile nagusiak, argudioaren ildo nagusia eta ondorioak ateratzeko. Horretarako gaiak ezagunak edo ikaslearekin zerikusia dutenak izango dira: hizkuntza ikasteko material egokiak, lan eskaintzak edo iragarkiak, liburuxka turistiko eta komertzialak, informazioak eta jarraibide errazak, berriak, informazio edo iritzi artikulu ez espezializatuak eta kontakizunak. Horretaz gain, testu mota bereko informazioa bilatzeko iturri ezberdinetatik.

AHOZKOAREN ULERMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituenean, gai da:

- Edukiaren inguruko hipotesiak egiteko eta atzemateko gaia, asmo komunikatiboak, ideia nagusiak eta detailerik esanguratsuenak, egoeraz, testuinguruaz, ikusten denaz eta ezagutzaz baliatuta. Argi, nahikoa astiro eta erregistro estandarrean - formalean zein informalean - eta berriro entzun edo zalantzak argitzeko aukera duten testuak izango dira: elkarrizketak, informazioak, jarraibide errazak, azalpen zehatzak, albisteak, telefono mezuak, narrazioak, gai baten aurkezpenak, debateak, solasaldiak eztabaidak eta kontakizun txikiak.
- Modu estandarrean, astiro eta argi ahoskatutako gai ezagunei buruzko grabaketarik gehienak emandako informazioaren edukia ulertzeko. Telebistan gustuko dituen gaiak, elkarrizketak, hitzaldi laburrak, albiste programak...eta baita argi egituratuta eta ohi bezala egindako pelikulak ulertzeko ere.

IDAZKETA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituenean, gai da:

- Luzera eta mota ezberdinetako testuak idazteko ohiko gaien inguruan: norbere mezu eta eskutitzak, ohiko eskutitz formalak, galdeketak, txostenak, gertaera ezagunen edo asmatutakoaren kontakizunak, deskripzioak, instrukzioak, eskariak, informazio eta iritzi aurkezpenak eta gai ezagunen inguruko argudioak.

MINTZAMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituenean, gai da:

- Egoera ezberdinetan eta gai ugariaren inguruan harremanak egiteko, iritziak eta informazio zehatza trukatzeko, esperientziak, sentimenduak eta gertaerak kontatzeko eta deskribatzeko, gai ezagun bat aurkezteko eta bere iritzien zergatiak adierazteko.